

# Oinarrizko gaitasunak

Zientzia-, teknologia-  
eta osasun-kulturarako  
gaitasuna

Hizkuntza-komunikaziorako  
gaitasuna

Matematikarako  
gaitasuna

## Material didaktikoa

### Lehen Hezkuntza

EUSKO JAURLARITZA




GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

*NI ALDE ETA ZU KONTRA!!!*



EUSKARA ETA LITERATURA  
Lehen Hezkuntza. 4. maila

**ZU ALDE ETA NI KONTRA!!!**

**Arloak:** hizkuntzak, tutoretza, irakasgai guztiak

**Gaia:** ahozko elkarreragina

**Maila:** Lehen Hezkuntza. Laugarren Maila    **Saio kopurua:** 7

**Proposamenaren testuingurua:**

Sekuentzia didaktiko laburtxo hau ahozko elkarreragina lantzeko bideratuta dago. Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna osatzen duten dimentsioetako bat izanik, elkarrekintza ikasleek landu behar duten dimentsioa da.

Hala ere, komenigarria da proiektu orokor batean integratzea. Sekuentzia honetako jardueren bidez, bi pertsonaren arteko eztabaida landuko da eta oso aproposa da argudiatze lanari ekiten hasteko. Sekuentzian proposatzen diren jardueren bidez ikasleek elkarrekin eztabaidatuko dute eta eztabaidarako estrategiez hausnartuko dute. Grabazioa egingo da auto-ebaluazioan eta koebaluazioan trebatzeko.

**Landuko diren oinarrizko gaitasunak :**

- ✓ Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna (1,2, 3, 4 ,5, 6, 7, 8, 9. jarduerak)
- ✓ Ikasten ikasteko gaitasuna (2, 8, 9. jarduerak)
- ✓ Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna (1,2, 3, 4, 8. jarduerak)
- ✓ Gizarterako eta Herritartasunerako gaitasuna (1, 2, 3, 4, 6, 7, 8., 9 jarduerak)

**Helburu didaktikoak**

- Gizarte-harremanak eraikitzea helburu duten ahozko eta ikus-entzunezko interakzioetan parte hartzea.
- Komunikazio-harremanetan, lankidetzarako eta errespetuzko jarrera izatea.
- Eztabaidaren arauak ezagutzea.
- Kontra argudiatzeko zenbait egitura erabiltzea.
- Elkarrizketa hasten, mantentzen eta amaitzen laguntzen duten zenbait komunikazio-estrategia erabiltzea.
- Auto-ebaluazioan eta koebaluazioan aritzea.
- Bakoitzaren hizkuntza mailari buruzko gogoeta egitea.
- Eztabaida arauari buruz ikasitakoa beste testuinguru batzuetan erabiltzea.
- Ahozko elkarrizketetan euskara erabiltzeari dagokionez, jarrera positiboa eta aktiboa izatea.

**Edukiak:**

- Elkarreraginean aritzeko zenbait prozedura.
- Ahozko diskurtsoa kudeatzeko prozedurak.
- Eztabaidarako arauak.
- Kontra argudiatzeko zenbait prozedura.
- Elkarrizketa hasteko, mantentzeko eta amaitzeko komunikazio-estrategien erabilera.
- Auto-ebaluaziorako eta koebaluaziorako prozedurak.
- Komunikazio-harremanetan, lankidetzarako eta errespetuzko jarrera.
- Ahozko elkarrizketetan euskara erabiltzeari dagokionez, jarrera positiboa.

### Jardueren sekuentzia:

#### Planifikatzea

1. JARDUERA Motibazioa eta negoziazioa

#### Gauzatzea

2. JARDUERA. **Elkarrekin hitz egiten.** Ikasleen intereseko gaiak. Helburua, besterik gabe eztabaidatzea da, eta ikaskideek behaketa egin eta ebaluatzea.
3. JARDUERA. **Zer egin behar da elkarrizketan iritzia emateko?** Eztabaidarako zenbait arau denen artean adostea.
4. JARDUERA. **Zer egin behar dugu guk?** Talde handian, erabakiak hartzea kontrol-zerrendako adierazleak adosteko.
5. JARDUERA. **Iritzia ematen.** Iritzia emateko zenbait esapide.
6. JARDUERA. **Besteen iritzia kontuan hartzen.** Besteak dioena kontuan hartzeko hizkuntza baliabideak lantzea. Aurkaritza.
7. JARDUERA. **Ekin berriro!** Adostutako txantiloia kontuan harturik, berriro jardutea.

#### Erabiltzea

8. JARDUERA. **Oraintxe bai iritzia ondo emateko aukera!** Beste edozein gai hautatu, landutakoa aplikatzea eta grabazioa egitea.
9. JARDUERA. **Egindakoa ebaluatzen.** Grabazioen ebaluazioa eta balorazioen justifikazioa.

### Ebaluazioa

#### Adierazleak:

1. Ea ahozko interakzioetan parte hartzen duen.
2. Ea komunikazio-harremanetan, lankidetzarako eta errespetuzko jarrera duen.
3. Ea eztabaidaren arauak ezagutzen eta erabiltzen dituen.
4. Ea kontra argudiatzeko egiturak erabiltzen dituen.
5. Ea elkarrizketa hasten, mantentzen eta amaitzen laguntzen duten zenbait komunikazio-estrategiak erabiltzen dituen.
6. Ea bere iritzia ematen duen.
7. Ea auto-ebaluaziorako eta koebaluaziorako jarduerak burutu dituen.
8. Ea bere hizkuntza mailari buruzko gogoeta egin duen.
9. Ea eztabaida araei buruz ikasitakoa beste testuinguru batzuetan erabiltzen duen.
10. Ea ahozko elkarrizketetan euskara erabiltzeari dagokionez, jarrera positiboa eta aktiboa izan duen.

#### Tresnak:

##### Jardueren sekuentzian

Hasierako ebaluazioa: 1. jarduera

Prozesuaren ebaluazioa: 2., eta 3. jarduerak

Amaierako ebaluazioa: 8. eta 9. jarduerak

Irakasleak erabiliko duen beste edozein. Ebaluazio adierazleen arabera behaketa.

**NI ALDE ETA ZU KONTRA!!!**

## 1. JARDUERA

Badakizue nola defendatu zuen iritzia beste batekin hitz egiten duzuenean? Elkarrizketetan nola aritzen zarete?

Begiratu irudiei eta hitz egin elkarrekin. Deskribatu, ahoz, irudiotan ikusten duzuen. Zertan ari dira? Nor ari da ondo, nor txarto? Zergatik? Zer da inportantea elkarrekin hitz egiten duzuenean? Zertarako hitz egiten duzue elkarrekin? Zein da helburua?



Sekuentzia honen bidez elkarrizketetan aldeko eta kontrako iritziak ematean nola jardun behar den landuko duzue. Elkarrekin hitz egiten duzuenean oinarrizko arau batzuk izango dituzue kontuan, elkarrizketaren helburua ahaztu gabe, noski. Baina, zein da helburu hori?

Hori guztia egiteko lauko taldeak egingo dituzue eta binan-binan arituko zarete. Zer egiten duzuen ondo eta zer txarto aztertuko duzue.

Elkarrizketak irakasleak grabatuko ditu eta denon artean erabakiko duzue grabazioak non jarriko dituzuen ikusgai.

Ondokoak zehaztu irakaslearen laguntzaz:

Sekuentzia honetan hauxe ikasiko dugu egiten:

Honela egingo dugu lan:

Taldeak ondoko hauek gara:

Elkarrizketen helburua hauxe da:

Bukaerako ekoizpena hauxe izango da:

Ekoizpenarekin zer egingo dugu?:

## 2. JARDUERA. Elkarrekin hitz egiten

Ondoko hiru gai hauek proposatzen dizkizuegu:

1. GAIA. Parte hartuko zenuke Telebistako programa batean?

2. GAIA. Udalekura joatea gustatzen zaizu?

3. GAIA. Eskolako atsedendietan, kirol talde mistoak ala neskak alde batetik eta mutilak bestetik?

Begiratu irudiei eta irakurri arretaz iritziak eta behean proposatzen zaizkizuen arrazoiak.

1. GAIA: Parte hartuko zenuke Telebistako programa batean?

## ALDEKO IRITZIA: Bai, noski!!!



*Ondorengo arrazoiak aipa ditzakezue edo, bestela, bururaten zaizkizuen beste batzuk:*

- Oso ondo pasako dut, dibertigarria da-eta.
- Telebistan agertzen banaiz, jendeak ezagutuko nau eta lagun gehiago izango ditut.
- Opari bat emango didate joategatik...
- ...
- ...
- ...





1.GAIA: Parte hartuko zenuke Telebistako programa batean?

KONTRAKOA: Pentsatu ere ez!



*Ondorengo arrazoiak aipa ditzakezue edo, bestela, bururatzen zaizkizuen beste batzuk:*

- Barre egingo didate ezagunek.
- Ez dakit abesten, ez dakit dantzatzen, zer egingo nuke?
- Telebistan agertzen direnak frikiak dira.
- Telebista ez zait gustatzen, nahiago nuke pelikula batean agertu.
- ...
- ...
- ...





## 2. GAIA : Udalekura joatea gustatzen zaizu?

ALDEKO IRITZIA. *Udalekura, noski!*



*Ondorengo arrazoiak aipa ditzakezue edo, bestela, bururatzeko beste batzuk:*

- Neska eta mutil asko ezagutuko ditut eta lagun gehiago izango ditut.
- Gauetan logeletako giroa oso dibertigarria da, eta kanpoko ere bai: kankak, sua...
- Leku desberdinak eta politak ezagutuko ditut.
- ...
- ...



## 2. GAIA: Udalekura joatea gustatzen zaizu?

KONTRAKOA: Ez! *Askoz hobeto etxean!*



*Ondorengo arrazoiak aipa ditzakezue edo, bestela, bururatzen zaizkizuen beste batzuk:*

- Nire betiko lagunekin jolastuko dut .
- Nahi dudana egiteko denbora izango dut: lo egin, telebista ikusi, hondartzara joan...
- Udalekuko bazkaria nazkagarria da, hobeto jaten da etxean
- ....
- .....



3. GAIA: Eskolako atsedendietan, kirol talde mistoak ala neskak alde batetik eta mutilak bestetik?

ALDEKO IRITZIA: *Bai, noski !*



*Ondorengo arrazoiak aipa ditzakezue edo, bestela, bururutzen zaizkizuen beste batzuk:*

- Abilezia desberdinak ditugu eta horrela taldeak orekatzen dira.
- Gure adineko neskak mutilak baino helduagoak da, jolasten ere azkarragoak dira.
- Elkarrekin bizitzen ikasi behar dugu.
- ...
- ...



**3.GAIA: Eskolako atsedenaldietan, kiroltako talde mistoak ala neskak alde batetik eta mutilak bestetik?**

**KONTRAKOA: *Neskak eta mutilak? Pentsatu ere ez!***



*Ondorengo arrazoiak aipa ditzakezue edo, bestela, bururatzen zaizkizuen beste batzuk:*

- Mutilek gehiago korritzen dute.
- Euria denean, neskek ez dute patiora joan nahi ez bustitzeagatik.
- Mutilek tranpak egiten dituzte
- Neskak kexaka ibiltzen dira, min hartu dutela...
- ...
- ...



Orain, launaka bildu eta bikoteak egingo dituzue. Gai horietako bat aukeratuko duzue lauron artean.

Gero, bikoteka, 2-3 minutuan-edo arituko zarete aukeratu duzuen gaiaz hitz egiten. Aldeko edo Kontrako iritziak hautatu eta horiek defendatzeko arrazoiak eman eta zuen ikuspuntuak azalduko dituzue. Beste bikoteak isiltasunean begiratuko du nola egiten duzuen. Baina behatzaileetako batek ondo egiten duzuen idatziko du eta besteak, berriz, txarto egiten duzuen apuntatuko du behaketa-orrian. Amaitu ondoren, zereginak trukatuko dituzue bikoteen artean.

Behaketa-orria

Taldeko lau kideak hauek gara: ....., ....., ....., ..... Bikoteak honakoak gara: ...../..... eta ...../ .....		
	Ondo egin duena	Txarto egin duena
Izena:		
Izena:		

Amaitzean, talde handian elkartuko dituzue behaketaren emaitzak. Elkarrekin komentatu:

*Zer egin duzue ondo eta zer gaizki?*



### 3. JARDUERA. Zer egin behar da elkarrizketan iritzia emateko?



Berrero bilduko zarete taldeka eta irakasleak emango dizkizuen ezaugarriak irakurriko dituzue. Hauxe da erabaki behar duzuen:

#### *Zer egin behar da elkarrizketa batean iritzia emateko?*


Ezaugarriak irakurri eta taldean eztabaidatu. Bost aukeratu behar dituzue:

Hitza kendu behar zaio besteari.	Hitz egitean akats gutxi egin behar da.
Argi hitz egin behar da.	Solaskidearen aurka egon behar da beti.
Elkarrizketaren gaia mantendu behar da.	Keinuak eta imintzioak egin behar dira ados ez gaudela adierazteko.
Bestearen argudioak eta arrazoiak ere kontuan hartu behar dira.	Bat-batean aritu behar da, gehiegi pentsatu gabe.
Gelakide maitagarrietako bat izan behar da.	Hitz egiten den bakoitzean, txiste bat kontatu behar da.
Etengabe aldatu behar da gaia.	Etengabe galdetu behar zaio besteari "ulertzen duzu?" solaskideak ulertu duela ziurtatzeko.
Isildu egin behar da besteak hitz egiten duenean.	Besoak, zangoak, burua.... etengabe mugitu behar dira.
Oso ahots atsegina eduki behar da.	Norberaren arrazoiak soil-soilik hartu behar dira kontuan.
Solaskidearen begietara begiratu behar da.	Datu asko eman behar dira.

Zeintzuk dira aukeratu dituzuen ezaugarriak? Idatzi hemen:

- 1.-.....
- 2.-.....
- 3.-.....
- 4.-.....
- 5.-.....

#### 4. JARDUERA. Zer egin behar dugu guk?



Orain, talde handian bilduko zarete eta hautatu dituzuen ezaugarriez hitz egingo duzue. Azaldu zergatik aukeratu dituzuen. Gero, irakaslearekin batera, talde osoaren ustez kontuan hartu behar diren bost ezaugarriak idatziko dituzue ondorengo txantiloian.

Ez ahaztu! gizalegez eztabaidatu eta zergatiak adierazi!

ELKARRIZKETETAN EZAUGARRI HAUEK KONTUAN HARTU BEHAR DIRA:	
1.	
2.	
3.	
4.	
5.	



5. JARDUERA. Iritzia ematen



Elkarrizketan iritzia emateko eta adierazi behar duzuenaberatsagoa izateko, esapide desberdinak erabiltzea komeni da.

Zuen ikuspuntua adierazteko ondoko hauek erabil ditzakezue:

Nire ustez...  
 Jende askok uste du...  
 Nire ikuspuntutik...  
 Nire ustetan...

Uste dut... erabiltzen dugunean,  
 Badakit... aditzari -la partikula  
 Pentsatzen dut... gehitu behar zaio baiezko perpausetan.  
 Iruditzen zait...

Desadostasuna adierazi nahi baduzue, berriz, ondoko hauek erabil ditzakezue:



Ez dut uste... erabiltzen dugunean,  
 Ez dut pentsatzen... aditzari -nik partikula gehitu behar zaio ..  
 Ez zait iruditzen...

**Adierazi zuen adostasuna edo desadostasuna eremuan bezala:**

*Mundu guztiari gustatzen zaio Port Aventura joatea*

- *Uste dut mundu guztiari gustatzen zaiola Port Aventura joatea*
- *Ez dut uste Port Aventura joatea mundu guztiari gustatzen zaionik*

- - Telebistako saio gehienak dibertigarriak dira

Nik **uste dut** .....

**Ez dut uste** .....

- - Egunak gauza asko egiteko ematen du.

Nik **uste dut** .....

**Ez dut pentsatzen**.....

- - Batzuk aspertu egiten dira

**Nire ustez**.....

**Ez zait iruditzen**.....

- -Denbora librea aprobetxatu behar da.

**Nire ikuspuntutik**.....

- -Oso baliagarria eta interesgarria da

**Jende askok uste du**.....

**Inork ez du uste** .....

## 6. JARDUERA. Besteen iritzia kontuan hartzen

Gai baten inguruan oso inportantea da bestearen ideiak entzun eta errespetatzea. Kontuan hartu behar dugu besteak esandakoa. Gerta liteke, baita, bestearen arrazoiak hain ondo adierazita egonik, eta hain pisutsuak izanik gu konbentzitzea!

Adierazi behar duzuen arrazoiak kontrakoa bada ere, bestearen arrazoiak kontuan hartzeko ondoko esapide hauek erabil ditzakezue:

Elkarrizketa hasita dagoela eta bakoitzak berak uste duena esateko , ondoko esapide hauek erabil ditzakezue:

- *Barkatu, nik ere uste dut...*
- *Zuk diozuna egia da, baina...*
- *Entzuten ari naiz, eta nire ustez...*
- *Ez nago ados iritzi horrekin,..... –lako*

Horretaz gain, eztabaidatzen duzuenean, besteak esandakoaren aurkako ideia adierazi nahi baduzue, ondoko lokailu edo lotura hitz hauek erabil ditzakezue:

- **Hala ere, baina, dena den.** Kontrajartze txikia adierazten dute eta horien bidez, besteak esandakoa jaso eta zuen iritzia eman dezakezue.

Adibidez:

*Zuk uste duzu neskek eta mutilek elkarrekin jolastu behar dutela, **baina**, nire ustez, oso desberdinak dira eta hori ezinezkoa da.*



Ondoren zenbait ideia jarri dizkizuegu. Horiek abiapuntutzat harturik, beste bat gehitu behar duzue kontrajartze txikia adierazteko eran:

Adibidez: Port-Aventura oso leku dibertigarria da, hala ere, badira horrelako leku dibertigarri asko.

- Etxean gurasoekin eta familiarekin oso ondo eta gustura egoten da.....
- Udalekura joatea ez zait gustatzen,.....
- Telebistako saioetan parte hartzea oso ideia ona iruditzen zait;

### 7. JARDUERA. Ekin berriro!

Orain, lau taldeak mantenduko dituzue eta lehenengo jarduera (1. JARDUERA) errepikatuko duzue. Berriro eztabaidatuko duzue, baina hiru gaietatik beste bat, desberdina, aukeratuko duzue eta, praktikatzeko, txantiloian zehaztu dituzuen ezaugarriak hartuko dituzue kontuan.

### 8. JARDUERA. Oraintxe bai iritzia ondo emateko aukera!



Asko praktikatu duzue eta badakizue zer egin behar duzuen elkarrizketetan zuen iritzia behar bezala adierazteko. Jarduera honetan gaia aldatuko duzue. Beste bat, berria, proposatuko duzue. Edozein gai aukeratu ahal duzue, asko gustatzen zaizuen bat, edo batari gustatzen zaiona eta besteari ez...Irakasleak bikoteen

eztabaidak grabatuko ditu.

Bildu zaitetzte eta beheko taulan idatzi hautatu duzuen gaia eta, aldeko edo kontrako argudioak apuntatu.

**Gure taldeak aukeratu duen gaia:**  
 .....  
 .....

<b>Aldeko iritzia:</b> .....	<b>Kontrako iritzia:</b> .....
<b>Argudioak:</b> ..... ..... ..... ..... .....	<b>Argudioak:</b> ..... ..... ..... ..... .....

Aurrekoetan egin duzuen bezala, laukoteka arituko zarete. Gogoratu bikoteko kide bakoitzak bere iritzinari eutsi beharko diola. Hala ere, beste kidea konbentitzea da helburua, beraz, ondo hautatu argudioak eta behar bezala aritu.



Behatzaileok txantilo hori erabiliko duzue balorazioa egiteko:

ELKARRIZKETAN EZAUGARRI HAUEK KONTUAN IZANGO DITUGU:	<i>(Izena)</i> .....		<i>(Izena)</i> .....	
	<i>Bai</i>	<i>Oraindik ez</i>	<i>Bai</i>	<i>Oraindik ez</i>
	1.			
2.				
3.				
4.				
5.				

**BEHATZAILEAREN IRITZIA**

.....

.....

**IRAKASLEAREN IRITZIA**

.....

## 9. JARDUERA. Egindakoa ebaluatzen

Azkenik, grabazioak ikusiko dituzue eta behatzaileek azaldu egingo dute zer egin duzuen ondo eta zer txarto eta zergatik. Grabazioekin zer egin? Hasierako jardueran erabaki duzuen!

